



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

MARRAZKETA ARTISTIKOA II **DIBUJO ARTÍSTICO II**

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketak bi aukera ditu, **A** aukera eta **B** aukera. Ikasleak horietako bat aukeratu eta garatu beharko du.

Azterketak ordubete eta 30 minutuko iraupena izango du.

Materialak:

Bi aukeretan (**A** eta **B**) marrazkia egiteko erabiliko den papera banatuko da (DIN A3, 420 x 297 mm).

A aukeran, ikasleak erabili beharreko teknika aukeratu ahal izango du, ekarri dituen materialak erabiliz. Hala ere, grafitozko arkatzekin bakarrik marraztu ahal izango du.

B aukeran, ikasleak aurrez eskatutako materialak erabili beharko ditu. Eskatutako materialak honako hauek dira: arkatzak, kretak edo hiru koloretako klarionak (kolore zuri edo antzeko kolore argia, gorria, eta kolore beltza edo antzeko iluna). Nahi izanez gero, laugarren kolore bat erabili ahal izango da (gorri iluna).

A AUKERA. IRUDI HISTORIKO BAT AURREZ MARRAZTEA, PROFIL BATETIK ABIATUTA

- Profilezko informazio batetik abiatuta, irudi bera marraztu aurretiko bista batean.
- Hasierako irudia DIN A4 baino zertxobait txikiagoa da, eta orri nagusiagoaren (DIN A3+) erdia hartzen du (gutxi gorabehera). Paper honetan marraztu behar da, emandako irudiaren tamainari eutsiz.
- Erabili beharreko teknika librea izango da, eta prozedura lehorrak edo hezeak erabili ahal izango dira, baita nahasiak ere.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Neurriak eta proportzioak egokitzea. 2,5 p.
- Osatu beharreko datuen sormen-gaitasuna. 2,5 p.
- Aukeratutako teknikaren erabilera egokia eta menderatzea. 2,5 p.
- Bolumenaren, irudiaren eta hondoaren irudikapena. 2,5 p.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACC
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

MARRAZKETA ARTISTIKOA II

DIBUJO ARTÍSTICO II

B AUKERA. HIRU ARKATZEZ MARRAZTEA, ARGAZKI BATETIK ABIATUTA

- DIN A4ko koloretako argazki batetik abiatuta, argilun nabarmena duena, "trois crayons" teknika erabiliz DIN A3 batean marraztea eskatzen da.
- Ikasleari emango zaion koloreztatutako (arre edo marroi argia) orri batean marraztu beharko da emandako irudia, arkatzak, klarionak edo kretak erabiliz, gutxienez kolore argi batekin (zuria edo antzekoa), gorri batekin eta kolore ilun batekin (beltza edo antzekoa). Laugarren kolore bat ere erabil daiteke (gorri iluna) ikasleak hala nahi badu.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Ahokatzea eta proportzioak mantentzea. 3 p.
- Teknika menderatzea. 3 p.
- Irudikapen bolumetrikiko zuzena eta irudiaren tonuen bereiztea. 3 p.
- Azken akabera (batasuna eta koherentzia). 1 p.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea